

PARTICIPACIÓN DE LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA HAURREN ETA NERABEEN PARTE HARTZEA



Guía para las Administraciones Públicas
Administrazio Publikoentzako Gidaliburua

I PLAN
GOBIERNO
ABIERTO



GOBERNU
IREKIAREN
I. PLANA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Contigo Zurekin

PARTICIPACIÓN DE LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA

GUÍA PARA LAS
ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

HAURREN ETA NERABEEN PARTE HARTZEA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOENTZAKO
GIDALIBURUA

Elena Bernia
Paloma de la Cruz

Edita: Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior. Gobierno de Navarra

Introducción de la Guía: Dr. Alberto Javier Jauregui Virto (Departamento de Sociología y Trabajo Social UPNA. Asociación Umetxea Sanduzelai.)

Contenidos, maquetación e ilustraciones: Elena Bernia y Paloma de la Cruz (Diseñadoras, facilitadoras y activistas por el aumento y mejora de la participación de niñas, niños y adolescentes.)

Impresión: Ulzama Digital S.L.

Depósito Legal: DL NA 2428-2021

Octubre 2021

Argitaratzailea: Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua. Nafarroako Gobernua

Sarrera: Alberto Javier Jauregui Virto dk (NUPeko Soziologia eta Gizarte Laneko Departamentua. Umetxea-Sanduzelai elkarte.)

Edukiak, maketazioa eta ilustrazioak: Elena Bernia eta Paloma de la Cruz (Diseinatzaileak, bideratzaileak eta haur eta nerabeen parte hartzea bultzatzearen eta hobetzearen aldeko ekintzaileak.)

Inprimatzea: Ulzama Digital S.L.

Legezko gordailua: DL NA 2428-2021

2021eko iraila

//ÍNDICE DE CONTENIDOS


PRESENTACIÓN	7
INTRODUCCIÓN	13
LA GUÍA Y SU UTILIZACIÓN	25
1// Antecedentes	26
2// Objetivos	27
3// A quién va dirigida	29
4// Quién la escribe y con qué finalidad	30
GUÍA PARA LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS	33
1// Personas que trabajáis en organizaciones públicas	36
2// Propósito. ¿Para qué la participación infantil y adolescente?	41
3// Proceso. ¿Cómo realizar participación infantil y adolescente?	46
4// Resultado. ¿Cómo traducimos las propuestas?	62

//EDUKIEN AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
HITZAURREA	13
GIDALIBURUA ETA GIDALIBURUA NOLA ERABILI	25
1// Aurrekariak	26
2// Helburuak	27
3// Norentzat da?	29
4// Nork idatzi du eta zer helburu dauka?	30
ADMINISTRAZIO PUBLIKOENTZAKO GIDALIBURUA	33
1// Erakunde publikoetan lan egiten duzuenok	36
2// Helburua. Zertarako nahi dugu haur eta nerabeek parte hartzea?	41
3// Prozesua. Nolakoa da haurren eta nerabeen parte hartzea?	46
4// Emaidza. Nola itzuliko ditugu proposamenak?	63

CASO DE ESTUDIO	69
BIBLIOGRAFÍA	105
CHECKLIST PARA LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS	109
<i>Check list</i> para las Administraciones Públicas	110

AZTERTZEKO KASUA	69
BIBLIOGRAFIA	105
ADMINISTRAZIO PUBLIKOENTZAKO GIDALIBURUA	109
Administrazio publikoentzako gidaliburua	116



PRESENTACIÓN

AURKEZPENA



PRESENTACIÓN

En el año 1989 la Convención de los Derechos de la Infancia ya reconoció a la infancia el derecho de expresar su opinión en los asuntos que le competen, es decir, el derecho a participar y a ser escuchada.

30 años después, la Ley Foral 12/2019, de 22 de marzo, de Participación Ciudadana recoge un título específico (el VI) a la regulación de este derecho a la participación de niños, niñas y adolescentes.

Varios aspectos son destacables de esta regulación, por un lado, obliga a las administraciones a fomentar y promover esta participación en los asuntos que afecten o interesen a la infancia, por tanto, deberá crear los espacios y canales para que puedan ejercer el derecho a la participación. Por otro lado, la administración debe tener en cuenta la necesidad de adaptar contenidos, espacios y actividades al colectivo al que se dirigen, es decir, para que la participación se pueda dar, el lenguaje es importante y debe de ser claro.

AURKEZPENA

1989an Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak jada hurrei aitortu zien dagozkien gaietan beren iritzia emateko eskubidea, hau da, parte hartzeko eta entzunak izateko eskubidea.

30 urte geroago, Herritarren Parte-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean, berariazko titulu batek (VI.ak) haurren eta nerabeen parte hartzeko eskubide hori arautzen du.

Erregulazio horren hainbat alderdi azpimarragarriak dira; alde batetik, administrazioak behartzen ditu parte-hartze hori sustatu eta bultzatzera hurrei eragiten dieten edo interesatzen zaizkien gaietan; beraz, parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko guneak eta bideak sortu beharko dituzte. Bestalde, administrazioak kontuan hartu behar du haurrentzako edukiak, espazioak eta jarduerak kolektibo horri egokitu behar zaizkiola; izan ere, parte hartu ahal izateko, hizkuntza garrantzitsua da eta argia behar du izan.

El 23 de junio de 2021 el Gobierno de Navarra aprobó el I Plan de Gobierno Abierto del Gobierno de Navarra. Uno de los 25 compromisos que se recogen, en concreto el 3.7, prevé el impulso y la promoción de la participación infantil y adolescente. Este compromiso ya fue asumido por el Gobierno de Navarra en el IV Plan de Gobierno Abierto de España, dándose muestra así de la importancia que tiene el fomento de la participación de los niños, niñas y adolescentes para la evolución hacia una verdadera administración cercana, incluyente y colaborativa.

Actualmente podemos decir que en nuestra comunidad existen experiencias del reconocimiento del interés de los niños, niñas y adolescentes con sus contribuciones en los asuntos políticos. Se trata de los consejos municipales de infancia que existen en Navarra y que actualmente se está en el camino de constituirse más. Solo en el Estado hay más de 420 creados. Estos consejos vienen a manifestar y contribuir a entender, que las aportaciones e implicación de la infancia, hace que las respuestas sean más creativas, más ricas, más adecuadas, más inclusivas...

Nafarroako Gobernuak 2021eko ekainaren 23an Nafarroako Gobernu Irekiaren I. Plana onetsi zuen. Horko 25 konpromisoetako batek (zehazki, 3.7 puntuak) haurren eta nerabeen parte-hartzea bultzatu eta sustatzea aipatzen ditu. Nafarroako Gobernuak konpromiso hori hartua zuen jada Espainiako Gobernu Irekiaren IV. Planean, agerian geratzen zelarik haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzeak garrantzi handia duela administrazio hurbil, barneratzaile eta kolaboratibo baterantz jotzeko.

Gaur egun, esan dezakegu gure erkidegoan zenbait esperientziak aitortzen dituztela haur eta nerabeen interesa eta gai politikoetan egin dituzten ekarpenak. Haurren udal kontseiluak dira horiek. Nafarroan gaur badaude zenbait, eta beste hainbat eratzen ari dira. Estatuan 420 baino gehiago sortu dira. Kontseilu horiek adierazi eta ulertarazten dute ezen, haurren ekarpenei eta inplikazioari esker, erantzunak sortzaileagoak, aberatsagoak, egokiagoak, inklusiboagoak... direla.

Gai publikoak direnean, zaila da parte hartzeko prozesuak egitea; bereziki, parte hartzea ohiko ha-

Siendo conscientes de la dificultad de llevar a cabo procesos participativos en asuntos públicos, y en especial en colectivos en donde la participación no ha sido la forma habitual de relación, como es el de la infancia y la adolescencia desde el Servicio de Gobierno Abierto y Atención a la Ciudadanía, adscrita a la Dirección General de Presidencia y Gobierno Abierto, se ha elaborado la presente herramienta de apoyo para avanzar en este tipo de procesos. El documento que ahora se presenta ha sido elaborado con las conclusiones y experiencias adquiridas tras el pionero, ambicioso y satisfactorio proceso de participación con niñas, niños y adolescentes que se llevó a cabo en la elaboración del anteproyecto de la ley foral de la infancia. Y sí, se ha demostrado que nuestros niños, niñas y adolescentes son capaces de participar en la elaboración de una ley.

La guía se ha dividido en dos volúmenes, uno dirigido a las administraciones públicas y otra para las personas educadoras y facilitadoras de los procesos de participación con la infancia y la adolescencia. En este volumen, compartimos con vosotras y vosotros la guía y varios materiales para que desde las

rreman-modua izan ez duten taldeen kasuan, eta halakoxea da hurren eta gazteen taldea. Hori go-goan izanik, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak -zeina Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiari atxikita baitago- laguntza-tresna hau prestatu du horrelako prozesuetan aurrera egiteko. Orain aurkezten den dokumentua prestatu da prozesu aitzindari, indartsu eta egoki baten ondorioak eta esperientziak aintzat hartuta. Prozesu hori hurrek eta nerabeek parte hartzekoa zen eta Hurrei buruzko Foru Legearen aurreproiektua prestatzean gauzatu zen. Eta ederki frogatu da, bai horixe, gure haur eta nerabeak gai di-rela lege baten prestaketan parte hartzeko.

Gidaliburua bi liburukitan banatu da: bat adminis-trazio publikoentzat da; bestea, hezitzaileentzat eta haur eta nerabeek parte hartzeko prozesuen biderat-zaileentzat. Liburuki honetan zuekin partekatzen di-tugu gidaliburua eta hainbat material, administrazio publikoetan beldurra gal diezaiogun hurren eta ne-rabeen parte-hartzeari, eta haiei lagundu diezaiegun beren eskubideak erabiltzen eragiten dieten zerbitzu publikoak eta erabakiak diseinatu, prestatu, garatu,

administraciones públicas le perdamos el miedo a la participación de la infancia y la adolescencia y les facilitemos el ejercicio de sus derechos en el diseño, elaboración, desarrollo, ejecución y evaluación de aquellos servicios públicos y decisiones que les afecten, consiguiendo así que éstos sean percibidos como algo común. Desde la práctica entenderemos que la participación infantil conlleva mejores decisiones y pone en valor su capacidad como ciudadanos y ciudadanas de hoy.

Joseba Asiain Albisu
Director General de Presidencia
y Gobierno Abierto

gauzatu eta ebaluatzeari dagokienez. Izan ere, horrela lortuko dugu zerbitzu eta erabaki horiek guztionak direla sentitzea. Praktikaren bidez ulertuko dugu haurren parte-hartzearekin erabaki hobeak hartzen direla eta balioa ematen zaiola egun herritar gisa duten gaitasunari.

Joseba Asiain Albisu
Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari
nagusia



INTRODUCCIÓN

HITZAURREA



LA PARTICIPACIÓN DE LAS NIÑAS, NIÑOS Y ADOLESCENTES

La participación de las niñas, niños y adolescentes es un derecho, un aprendizaje sociocultural y un modelo democrático de relaciones entre la infancia, la adolescencia y las personas adultas. Participar como ejercicio de derechos no es activismo o consumo de actividades, sino un proceso de reflexión – acción en el que las niñas, niños y adolescentes desarrollan sus capacidades, aprenden habilidades y asumen roles en su relación, entre sus iguales, como con otras y otros menores y con las personas mayores que conviven, en los diferentes entornos en los que participan.

La participación no es una opción, es junto a la prevención la estrategia central de la protección de la infancia y la adolescencia fundamentada en los derechos de las niñas, niños y adolescentes (UNICEF 2008). Participar para una niña, niño o adolescente es

HAURREN ETA NERABEEN PARTE HARTZEA

Haurren eta nerabeen parte hartzea, eskubide bat izateaz gain, ikasketa soziokultural bat eta haurren, nerabeen eta helduen arteko harremanen eredu demokratiko bat da. Norbere eskubideak baliatuz parte hartzea ez da aktibismoa edo jardueren kontsumoa, gogoeta prozesu bat da, ekintza bat, non hurrek eta nerabeek beraien gaitasunak garatzen, abileziak ikasten eta rolak hartzen dituzten beraien harremanetan, berdinekin –beste adin txikikoekin– eta pertsona helduekin, parte hartzen duten eremuetan.

Parte hartzea ez da aukera bat, prebentzioarekin batera, haurrak eta nerabeak babesteko estrategiaren funtsa da, eta beraien eskubideetan oinarriturik dago (UNICEF, 2008). Haur edo nerabe batentzat, parte hartzea prozesu konplexua da, fisikoa, soziala, kognitiboa eta emozionala, eta faktore askok eragiten dute

un proceso físico, social, cognitivo y emocional complejo en el que intervienen múltiples factores. Es un derecho que se ejerce de forma grupal y práctica en geografías e historias colectivas. Es un instrumento personal para crecer y madurar, para aprender y experimentar la ciudadanía (Gaitán, L. 2014).

La prevención en la protección de la infancia y la adolescencia se fundamenta en la participación de las propias niñas, niños y adolescentes en las acciones preventivas. Esta

participación tiene diferentes protagonistas en cada uno de los **niveles preventivos** (Caplan, G. 1966). En el **nivel primario** está protagonizada por el conjunto general de la población infantil o adolescente de un pueblo, barrio o ciudad (Jáuregui, A. 2016). En el **secundario** las personas participantes son niñas, niños y adolescentes con necesidades o problemáticas específicas. El **terciario** aborda la prevención de aquellas niñas, niños y adolescentes que vuelven al barrio o pueblo desde diferentes procesos protectores, de atención sanitaria o familiares: ingresos



prozesu horretan. Talde gisa erabiltzen den eskubide bat da, eta geografia eta historia kolektiboetan praktikatzen da. Hazteko eta heltzeko tresna pertsonal bat da, herritartasuna ikasi eta praktikatzekoa (Gaitán, L., 2014).

Hurrek eta nerabeek prebentzio ekintzetan parte hartzea haurrak eta nerabeak babesteko prebentzioaren funtsa da. Parte hartze horretako **prebentzio maila** bakoitzeko protagonis-

tak ez dira berdinak (Caplan, G., 1966). **Lehen mailan** protagonista herri, auzo edo hiri jakin bateko haurren edo nerabeen kolektiboa da (Jáuregui, A., 2016). **Bigarren mailan**, behar edo arazo espezifikok dituzten haur eta nerabeak dira. **Hirugarren mailan**

babes prozesu baten ondotik, dela arreta sanitariokoa dela familiartekoa, auzora edo herrira itzultzen diren haur eta nerabeen prebentzioaz arduratzen da. Babes prozesua osasun arreta edo beste izan daiteke: ospitaleratzea, egoitza bateko harrera, terapia psikosoziala, migrazioa edo beraien jatorrizko ingurunetik aldentzen dituzten bestelako egoera batzuk. Maila bakoitzak bere

hospitalarios, acogimientos residenciales, terapias psicosociales, migraciones u otro tipo de ausencias que los alejan de sus entornos de origen. Cada uno de los niveles tiene acciones específicas que encuentran su mayor potencia preventiva cuando se integran en “sistemas comunitarios” donde participan junto a las niñas, niños y adolescentes: sus familias, vecindario, así como, las personas profesionales de los servicios y centros públicos que trabajan con la infancia y la adolescencia (Jáuregui, A. 2016).

La participación infantil y adolescente tiene **dos dimensiones** bien delimitadas. **Una es la participación entre menores:** iguales o con diferentes edades. Son los espacios infantiles y adolescentes auto-gestionados por ellas y ellos, los juegos simbólicos en el parque o el recreo del colegio, las conversaciones en el banco de la plaza comiendo pipas, las tardes de verano en la piscina, los partidos de fútbol u otros deportes, exploraciones en

La participación no es una opción, es junto a la prevención la estrategia central de la protección de la infancia y la adolescencia

(UNICEF, 2008).

Parte hartzea ez da aukera bat, prebentzioarekin batera, haurrak eta nerabeak babesteko strategiaren funtsa da

(UNICEF, 2008).

ekintza espezifikokoak ditu, eta ekintza horien indar prebentiboa areagotu egiten da “komunitate sistemetan” txertatzen direnean; izan ere, halakoetan, haur eta nerabeekin batera, beste askok ere parte hartzen


dute, honako hauek, esaterako: haien familiek, auzokideek eta baita hurrekin eta nerabeekin lan egiten duten zerbitzu publikoetako eta herri ikastetxeetako profesionalek ere (Jáuregui, A., 2016).

Haur eta nerabeen parte hartzeak ongi mugaturiko **bi dimentsio** ditu. **Bata adin txikikoen arteko parte hartzea da:** adin berekoak edo desberdinetakoak. Haur eta nerabeen espazioak dira, beraiek kudeatzen dituztenak; adibidez, parkean egiten dituzten jolas sinbolikoak edo eskolako aisialdia, plazako bankuetan pipak jaten izaten diren elkarrizketak, udako arratsaldeak igerilekuan, fut-

boleko edo beste kirol batzuetako partidak, herriko edo auzoko inguruetan egindako esplorazioak, jolas espazio birtualak eta hurrekin eta nerabeekin, beraiek

entornos cercanos del pueblo o barrio, los espacios virtuales lúdicos y todas aquellas donde las niñas y los niños y adolescentesserán quienes diseñen, organicen y actúen en exclusiva. **La otra dimensión son las demandas y propuestas adultas para integrar a menores en procesos** de planificación, gestión y evaluación de espacios familiares, escolares, sociales, comunitarios o de políticas públicas.

Las **acciones de participación** diseñadas por personas adultas tienen que **adaptarse a la capacidad y el nivel evolutivo** de las niñas, niños y adolescentes (Lansdown, G. 2005). También a los **contextos** en dónde se ponen en marcha estos procesos participativos con los que conforma la ecología de su desarrollo (Bronfenbrenner, U. 1987). Es indispensable ser conscientes de que **utilizar modelos adultos de participación con las niñas, niños y adolescentes**, así como, obviar su capacidad y momento evolutivo, **genera** lo contrario que se pretende en un proceso participativo: **pasividad, respuestas espejo** (dicen lo que queremos oír no lo que piensan...), distanciamiento de la actividad y rechazo a la participación.



bakarrik, diseinatzen, antolatzen eta parte hartzen duten bestelako espazio guztiak. **Beste dimentsioa helduek egiten dituzten eskari eta proposamenak dira**, adin txikikoak familia, eskola, gizarte edo komunitate espazioen edo politika publikoen planifikazio, kudeaketa eta ebaluazio prozesuetan integratzeko.

Helduek diseinatu **parte hartzeko ekintza horiek** haurren eta nerabeen **gaitasunen eta eboluzio mailaren arabera** izan beharko dute (Lansdown, G., 2005), baita parte hartzeko prozesu horiek martxan jartzen diren **testuinguruaren** arabera ere, haien garapenaren ekologia testuinguru horrek osatzen baitu (Bronfenbrenner, U. 1987). Ezinbestekoa da argi edukitzea **helduen parte-hartze ereduak haur eta nerabeekin erabiltzeak** eta haien gaitasuna eta eboluzio unea aintzat ez hartzeak parte hartzeko prozesu batekin lortu nahi denaren kontrakoa **eragiten duela**, hots, **pasibotasuna, ispilu erantzunak** (entzun nahi duguna esanen digute, ez beraiek pentsatzen dutena), jardueratik urruntzea eta parte hartzeari uko egitea.



Las niñas y los niños participan jugando y a través de su expresión artística: plástica, musical, corporal, teatral o audiovisual (Vygotsky, L. S.2009). El juego y la expresión artística son el método de aprendizaje propio de la infancia, es su metodología de investigación (Piaget, J. 1991). **En cada momento evolutivo se juega y se expresa de forma distinta. Durante las edades más tempranas, expresan y juegan en mundos mágicos, sin límites.** Progresivamente se vuelven más cercanos a la realidad y a lo concreto. Ellas y ellos hacen propuestas desde su realidad, sus conocimientos y su capacidad de análisis. Las niñas y los niños, en sus procesos de participación guiada (Rogoff, B. 1993) van descubriendo a otras personas y progresivamente esa nueva perspectiva les permitirá tomar parte en procesos de mayor complejidad. Estos comienzan poco antes de la adolescencia y será en esa etapa donde darán un

Las acciones de participación diseñadas por adultos tienen que adaptarse a la capacidad y el nivel evolutivo de los niños, niñas y adolescentes
(Lansdown, G. 2005).

Helduek diseinatu parte hartzeko ekintza horiek haurren eta nerabeen gaitasunen eta eboluzio mailaren arabera izan beharko dute
(Lansdown, G. 2005).

Haurrek jolasaren eta beraien adierazpen artistikoaren bitartez hartzen dute parte; esaterako, plástica, gorputz, antzerki edo ikus-entzunezko adierazpenen bidez (Vygotski, L., 2009). Jolasa eta adierazpen

artistikoa dira haurtzaroko ikasketak metodoak, hori baita beraien ikertzeko modua (Piaget, J., 1991). **Eboluzioaren une bakoitzari jolasteko eta adierazteko modu bat dagokio. Adin txikienetan, mundu magikoetan eta inolako mugarik gabe** jolasten dira eta adierazten dute. Gerora, pixkanaka hurbiltzen dira errealitatera eta gauza konkretuetara. Haurrek beraien errealitatek, beraien jakintza eta analisi gaitasunetik, egiten dituzte proposamenak. Parte-hartze prozesu gidatuetan (Rogoff, B., 1993), haurrek beste pertsona batzuk ezagutzen dituzte, eta horrek eskaintzen dien ikuspuntuak ahalbidetzen die konplexutasun handiagoko prozesuetan parte hartzen. Prozesu horiek ne-

salto cualitativo con el desarrollo de una identidad autónoma.

En la adolescencia, tanto las chicas, como los chicos, **quieren formar parte** de su pueblo o barrio, de la ciudad y del mundo en el que viven, **pero no se les puede obligar a participar porque la respuesta puede ser contraria**. Están construyendo su rol adulto y tienen que tomar sus propias decisiones (Hernández, J. 1991) Su interés tiene expresión, organización y acción a escala adolescente. Hay que motivarles respetando sus identidades, elaborando propuestas de participación desde sus intereses y necesidades, pero priorizando y apoyando el desarrollo de sus propias propuestas. Pueden investigar y elaborar propuestas formales con esquemas adultos en marcos académicos, pero todavía **sus instrumentos de intervención social propios son el juego y la expresión artística mucho más elaborados, menos mágicos y con contenidos críticos y provocadores**.



rabearoa baino pixka bat lehenago hasten dira, eta etapa horretan, jauzi kualitatiboa egin, eta nortasun autonomoa garatzen dute.

Nerabearoan, bai neskek eta bai mutilek, beraien herri edo auzoko, hiriko eta bizi diren munduko **parte izan nahi dute, baina ez ditugu parte hartzera behartu, kontrako erantzuna jaso baitaiteke**. Bakoitza bere heldutasun rola eraikitzen ari da, eta bakoitzak bere erabakiak hartu behar ditu (Hernández, J., 1991). Bakoitzaren nortasuna errespetatuz motibatuta behar dira, beraien interes eta beharretatik abiatuta eta parte hartzeko proposamenak eginez, baina beraien proposamenak landu ditzaten sustatu eta lehenetsi behar da. Inguru akademikoetan aztertu eta garatzen ahal dituzte proposamen formalak, helduen eskemen bidez, baina oraindik **gizartean parte hartzeko beraien modua jolasa eta adierazpen artistikoa dira, nahiz eta askoz modu garatuagoan eta ez hain magikoan egiten duten, eta edukia kritikoa eta probokatzailea den**.

En todas las etapas evolutivas las niñas, niños y adolescentes pueden aportar reflexiones y propuestas con relación a su vida, a sus entornos y también a políticas públicas, **pero hay un momento evolutivo de oportunidad** para la participación que debe tenerse en cuenta en la planificación de la participación infantil y adolescente. Ese momento se encuentra en el **periodo de transición entre la infancia y la adolescencia**. Niñas y niños de 11 y 12 años, así como, los adolescentes de 13 a 14 años. Este es el momento en que la ciudadanía infantil tiene la oportunidad de convertirse en toda su extensión en una ciudadanía práctica. **Las capacidades de las niñas, niños y adolescentes en esta transición permiten un aprendizaje de la participación que se integrará profundamente en la identidad propia de los adolescentes**. En este periodo empiezan a diferenciarse del mundo adulto ejerciendo progresivamente la autonomía, pero al mismo tiempo no dejan de ser niñas y niños con la plasticidad, la creatividad y la vincula-


Es un instrumento personal para crecer y madurar, para aprender y experimentar la ciudadanía
(Gaitán, L. 2014).

Hazteko eta heltzeko tresna pertsonal bat da, herritartasuna ikasi eta praktikatzekoa
(Gaitán, L. 2014).

Eboluzioaren etapa bakoitzean hurrek eta nerabeek gogoetak eta proposamenak eskaintzen ahal dituzte beraien bizitzari, beraien inguruneari eta politika publikoei buruz, **baina badago eboluzioan une bat non parte hartzeko aukera sortzen den**, eta hori aintzat hartu beharra dago haurren eta nerabeen parte hartzearen planifikazioan. Garai hori **haurtzarotik nerabezarorako trantsizio epean** gertatzen da. 11 eta 12 urteko haurrengan, eta, modu berean, 13 eta 14 urteko nerabeengan. Une hori da haurtzaroan dauden herritarrek osotasunean herritar praktiko bihurtzeko aukera duten uea. **Hurrek eta nerabeek trantsizio horretan dituzten gaitasunek aukera ematen diete parte hartzen ikasteko, eta parte hartze hori nerabeen nortasunean sakon integratuko da**. Garai horretan hasten dira helduen mundutik pixkanaka bereizten; horretarako autonomia erabiltzen hasten dira gero eta gehiago, baina,aldi berean, oraindik haur dira, beren malgutasun, sormen eta gizon eta emakume helduekin duten lotu-

ción con hombres y mujeres adultas. Es el momento en que el “grupo de iguales” comienza a ocupar mayor espacio en sus vidas sin perder la interacción con las figuras adultas de referencia. Las etapas evolutivas están vinculadas a diferentes contextos escolares y extraescolares. Es por ello, **que la participación tendrá siempre como referencia, tanto los Centros Escolares, como las asociaciones y agrupaciones infantiles y adolescentes informales.** Solo en **ámbitos colectivos:** como la clase o el grupo comunitario (social, cultural o deportivo) se pueden poner en marcha procesos participativos donde niñas, niños y adolescentes puedan reflexionar y proponer jugando o/y expresando de forma artística el mundo, la ciudad, el barrio o el pueblo que quieren y necesitan.

Los procesos infantiles y adolescentes de participación, más allá de las dinámicas grupales, **precisan de materiales gráficos y audiovisuales con soportes virtuales y publicaciones en papel.** Son materiales que permiten relacionar a niñas, niños y adolescentes de diferentes edades, en distintos barrios, pueblos y colegios con modelos lingüísticos propios e identi-



rarekin. Une horretan “berdinen arteko taldeek” gero eta espazio handiagoa hartzen dute beren bizitzan, baina erreferentziazko helduekin duten interakzioa galdu gabe. Eboluzioaren etapak eskolako eta eskolaz kanpoko testuinguru jakin batzuei loturik daude. Horregatik, **parte hartzeak beti izanen ditu erreferentzia gisa, alde batetik, ikastetxeak, eta, bestetik, haurren eta nerabeen elkarte eta talde informalak.** Ikasgela, komunitate taldea (soziala, kulturala edo kirolekoa) eta halako **inguru kolektiboetan** bakarrik jar daitezke martxan prozesu parte-hartzaileak, non umeez eta nerabeek, jolasaren eta/edo adierazpen artistikoaren bitartez, nahi eta behar duten mundu, hiri, auzo edo herriari buruz hausnartu eta proposamenak egin dezaketen.

Haur eta nerabeen parte-hartze prozesuek, talde dinamikak egiteaz gain, **euskarri birtualetan eta paperean dagoen material grafikoa eta ikus-entzunezkoa behar dute.** Material horrek elkarrekin lotzen ditu hizkuntza eredu propioak dituzten ikastetxeetako eta identitate soziokultural anitzetako hainbat adin, herri eta auzotako haurrak eta nerabeak. Ezinbestekoa

dades socioculturales diversas. Son imprescindibles **marcos simbólicos comunes** (personajes, canciones, historias...) que faciliten tanto la comunicación entre niñas, niños y adolescentes, como el análisis de la información y la devolución de las reflexiones y propuestas. De otra forma la participación se limitará a un archipiélago de experiencias con una difícil integración.

La determinación de la naturaleza participativa de un proyecto se mide por la voluntariedad, la información previa, la toma de decisiones compartida, el rol activo que desempeñan y las responsabilidades que asumen en la acción participativa tanto las personas adultas, como las niñas, niños y adolescentes (Hart, R. 2013). Son procesos de protagonismo infantil y adolescente que permiten los aprendizajes para la acción autónoma progresiva de éstos (Jáuregui, A. 2017)

Quando las niñas, niños y adolescentes participan aprenden a tomar decisiones, a poner y recibir límites, a cooperar, a crear alternativas y sobre todo a dialogar.

Haurrek eta nerabeek parte hartzen dutenean erabakiak hartzen, mugak ezartzen eta besteenak errespetatzen, elkarlanean aritzen, alternatibak eraikitzen eta, batez ere, elkarrekin hitz egiten ikasten dute.


da **esparru sinboliko komunak** izatea (pertsoneiak, abestiak, istorioak...), haurren eta nerabeen arteko komunikazioa, informazioaren analisia eta gogoeta eta proposamenak egitea erraztuko dutenak. Hala egiten ez bada, parte hartzea mugatu egingen da zenbait bizipenetara, eta horrek ez dio integrazioari mesederik egingen.

Proiektu bat parte hartzailea den edo ez esateko, honako faktore hauen arabera neurtzen da: borondatezkotasuna, aurretiazko informazioa, erabakiak denentzatean hartzea eta parte hartzaile guztiek rol aktibo bat eta ardurak izatea parte hartzeko orduan, nola helduek, hala haur eta nerabeek (Hart, R., 2013). Haur eta nerabeen protagonismo prozesuak

dira, eta beharrezkoak dira pixkanaka ekintza autonomoak egiten ikas dezaten (Jáuregui, A., 2017).

Cuando las niñas, niños y adolescentes participan aprenden a tomar decisiones, a poner y recibir límites, a cooperar, a crear alternativas y sobre todo a dialogar. **Tomar decisiones y gestionar los límites** son los fundamentos de las “conductas responsables” (Fernández, M.A. y otros 2007). La **cooperación** y la **creatividad** son los instrumentos de la “prosocialidad” que nos permite apoyar y **ayudar a las demás personas** sin esperar nada a cambio (Garaigordobil, M. 2003). El **diálogo** es la urdimbre básica para el aprendizaje del trabajo en común y la interculturalidad, aquello que Paulo Freire denominó “Teoría cultural dialógica” (2003). La autonomía se aprende con “los otros”, en palabras de Jean Piaget “*aparece con la reciprocidad*” (1971) y es el fundamento de la moralidad humana.

La participación no es una asignatura, ni tampoco un curso extraescolar, es lo que sustenta cada interacción entre las personas menores y mayores de edad cuando se respeta su condición de “sujetos de derechos”. Ésta tiene que integrar el curriculum escolar, la vida familiar y el desarrollo



Haurrek eta nerabeek parte hartzen dutenean erabakiak hartzen, mugak ezartzen eta besteenak errespetatzen, elkarlanean aritzen, alternatibak eraikitzen eta, batez ere, elkarrekin hitz egiten ikasten dute. **Erabakiak hartzea eta mugak kudeatzea** da “jokabide arduratsuaren” funtsa (Fernández, M.A. eta beste 2007). **Lankidetz**a eta **sormena** dira “jokabide prosozialerako” tresnak; jokabide horrek **beste pertsonei laguntza** eta babesa eskaintzea ahalbidetzen digu, ordainetan ezer espero gabe (Garaigordobil, M., 2003). **Elkarrizketa** da batera lan egiten ikasteko eta kulturartekotasuna bultzatzeko oinarrizko sarea, Paulo Freirek “kultur teoria dialogikoa” deitu zuen hura (2003). Autonomia “besteekin” ikasten da, Jean Piageten hitzetan “*elkarrekikotasunarekin agertzen da*” (1971) eta gizakion moralaren funtsa da.

Parte hartzea ez da ikasgai bat, ezta eskolaz kanpoko ikastaro bat ere, adin txikikoen eta helduen arteko interakzio bakoitzaren oinarrian dago, haien “subjektu eskubidedun” izaera errespetatzen denean. Horregatik, parte hartzeak

comunitario de pueblos, barrios y ciudades. La participación infantil y adolescente permite **abordar los conflictos, los proyectos y la convivencia** promoviendo un **desarrollo personal, grupal y comunitario a escala humana** (Max – Neff, M. 1993) y como ocurre en tantos otros procesos de restauración de derechos y avances en la igualdad, que venimos construyendo desde hace muchos años, **la participación infantil y adolescente es el nuevo paradigma de la vida en común de menores y mayores de edad del siglo XXI**. Una tarea social y cultural que nos obliga a las personas adultas a formarnos y transformar nuestras percepciones y enfoques en relación con las niñas, niños y adolescentes.

bere lekua izan behar du eskola curriculumean, famili bitzan eta herrietako, auzoetako eta hirietako komunitateen garapenean. Hurrek eta nerabeek parte hartzeak **gatazkei, proiektuei eta elkarbizitzari heltzea** ahalbidetzen du, eta **gizakion garapen pertsonala, taldekoa eta komunitatekoa** bultzatzen ditu (Max – Neff, M., 1993); horrez gain, eskubideak berrezartzeko beste hainbat prozesutan eta berdintasunaren arloko aurrerapenetan gertatzen den gisan –duela urte askotatik lantzen ari garenak–, **haurren eta nerabeen parte hartzea da paradigma berria XXI. mendeko adin txikikoen eta helduen arteko elkarbizitzari dagokionez**. Betebehar sozial eta kultural bat da, eta helduok behartzen gaitu geure burua formatzera eta haur eta nerabeen inguruan dugun pertzepzioa eta ikuspegia aldatzera.



LA GUÍA Y SU UTILIZACIÓN

GIDALIBURUA ETA
GIDALIBURUA NOLA ERABILI



1// ANTECEDENTES

*El anteproyecto de Ley Foral de atención y protección de la infancia y adolescencia y de promoción de la familia, los derechos de las y los menores y de la igualdad, ha sido elaborado por el Departamento de Derechos Sociales de la Comunidad Foral de Navarra después de recoger las necesidades, aportaciones y sugerencias, mediante un proceso participativo dirigido a las **personas** a las que afecta la Ley.*

Ha sido la primera vez que se ha elaborado un anteproyecto de Ley en Navarra contando con la **participación activa**, auténtica, de niñas, niños y adolescentes; además de familias y personas que trabajan en el ámbito educativo y de otros servicios públicos.

La **gran experiencia de este proceso participativo**, en el que han trabajado colaborativamente el Departamento de Derechos Sociales y el Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior, a través de la Sección de Participación Ciudadana del Servicio de Gobierno Abierto y Atención a la Ciudadanía; **nos ha llevado a la elaboración de esta guía.**

1// AURREKARIAK

*Haur eta nerabeentzako laguntza eta babesari, eta familia, adingabeen eskubideak eta berdintasuna sustatzeari buruzko Foru Legearen aurreproiektua Nafarroako Foru Komunitatearen Eskubide Sozialetako Departamentuak landu du, legeak eragiten dien **pertsonei** zuzendutako parte-hartze prozesu baten bidez haien beharrak, ekarpenak eta iradokizunak jaso ondotik.*

Haur eta nerabeen benetako **parte hartze aktiboarekin** Nafarroan osatu den lehen lege aurreproiektua izan da; horrez gain, familiek eta hezkuntzan lan egiten duten profesionalek eta beste zerbitzu publiko batzuetan jarduten dutenek ere parte hartu dute.

Parte-hartze prozesua esperientzia ederra izan da; elkarlanean aritu dira Eskubide Sozialetako Departamentua eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuaren Herritarren Partaidetzarako Atalaren bidez; **prozesu horretatik abiatuak honako gidali-burua hau sortu dugu.**

2// OBJETIVOS

Además de divulgar lo que se ha realizado y se ha logrado con este proceso participativo dirigido a la infancia y la adolescencia, esta guía nace para:

- **Impulsar** la participación **auténtica** de niñas, niños y adolescentes.
- **Compartir** lo que hemos aprendido.
- **Facilitar** el material que hemos creado para llevar a cabo el proceso.
- **Ser una herramienta**
 - que permita la **reflexión y el aprendizaje** para hacer posible la participación infantil y adolescente
 - que posibilite el **germen de nuevos procesos** de participación infantil y adolescente
 - que fomente el **diálogo y el trabajo colaborativo** alrededor de procesos de participación de niñas, niños y adolescentes.

2// HELBURUAK

Haur eta nerabeentzako parte-hartze prozesu horren bidez egin eta lortu dena dibulgateaz gain, honako helburu hauek ere baditu gidaliburuak:

- Haurren eta nerabeen **benetako parte hartzea sustatzea**.
- Ikasi duguna **partekatzea**
- Prozesua egiteko sortu dugun materiala besteen **esku jartzea**
- **Tresna bat izatea**
 - haur eta nerabeen parte hartzea posible eginen duen **gogoeta eta ikasketa** ahalbidetzeko
 - haur eta nerabeen parte hartzea sustatuko duten **beste prozesu batzuen** ernamuina izateko
 - haur eta nerabeentzako parte-hartze prozesuen inguruko **elkarrizketa eta elkarlana** sustatzeko.

Con la guía como herramienta, pretendemos comenzar a dar respuesta a las siguientes preguntas:

¿Cómo podríamos potenciar la participación de niñas, niños y adolescentes en su entorno?

¿Cómo podríamos concienciar al sector público sobre la importancia de que participen?

¿Cómo podríamos compartir las herramientas que hemos creado y facilitar que se utilicen en otros procesos participativos?

Gidaliburua tresna gisa harturik, honako galdera hauen erantzunak aurkitzea espero dugu:

Nola sustatzen ahal dugu haurrek eta nerabeek beraien inguruneetan parte hartzea?

Nola kontzientziatzen ahal dugu sektore publikoa parte hartze horren garrantziaz?

Nola partekatzen ahal ditugu sortu ditugun tresnak, beste parte-hartze prozesu batzuetan erabili ahal izateko?



3// A QUIÉN VA DIRIGIDA

Es preciso observar a las destinatarias de esta guía, aquellas personas que por su labor o actividad pueden ser determinantes para que se tenga en cuenta a la infancia y la adolescencia en las decisiones que tomamos las personas adultas; y para que su participación sea real, activa.

Hemos organizado la guía en **dos volúmenes**;

// GUÍA PARA LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS:

para personas que trabajan en el sector público elaborando políticas públicas o leyes, llevando a cabo medidas, actuaciones, servicios o proyectos que atañen a la ciudadanía; o tomando decisiones respecto a la pertinencia de llevar a cabo procesos de participación ciudadana y de cómo diseñarlos.

// GUÍA PARA LA FACILITACIÓN Y LOS ENTORNOS

EDUCATIVOS: personas que trabajan con la infancia y la adolescencia (docentes, educadoras, facilitadoras, monitoras de tiempo libre) que pueden acercar la participación a niñas, niños y adolescentes y desarrollarla en las actividades que organicen.

3// NORENTZAT DA?

Beharrezkoa da irudikatzea gidaliburu honek nor dituen begi puntuan, hau da, helduok hartzen ditugun erabakietan haurrak eta nerabeak aintzat har daitezten eta haien parte hartzea benetakoa, aktiboa izan dadin erabakigarriak diren pertsonak, egiten duten lana edo jardueragatik.

Gidaliburua **bi liburukitan** banatu dugu:

// ADMINISTRAZIO PUBLIKOENTZAKO GIDALIBURUA:

sektore publikoan politika publikoak edo herritarrei eragiten dieten legeak egiten, neurriak hartzen, jarduketak, zerbitzuak edo proiektuak lantzen dihardutenentzat edo baita herritarrek parte hartzeko proiektuak egitearen egokitasunari eta horiek diseinatzeari buruzko erabakiak hartzen dituztenentzat ere.

// HEZKUNTZARAKO ETA SAIOAK BIDERATZEKO

GIDALIBURUA: hurrekin eta nerabeekin lan egiten dutenentzat (irakasle, hezitzaile, bideratzaile, aisialdiko monitore), beraiek sustatu baitezakete haur eta nerabeak parte hartzera, eta beraiek sustatzen ahalko baitute parte hartze hori antolatzen dituzten jardueretan.

4// QUIÉN LA ESCRIBE Y CON QUÉ FINALIDAD

Nosotras (Elena Bernia y Paloma de la Cruz) hemos sido las encargadas de **diseñar el proceso participativo** de la infancia y la adolescencia (sus hitos, sesiones, talleres y material didáctico y de comunicación) en colaboración con el Gobierno de Navarra y las personas encargadas de la facilitación de las sesiones para el Anteproyecto de Ley que antes os mencionamos.

Pretendemos volcar en esta guía todo lo aprendido, así como las herramientas que hemos diseñado para el proceso, poniéndolas a vuestra disposición.


Además, incluimos nuevas herramientas con la intención de que ayuden a **propiciar la participación de las y los menores** en los contextos en los que conviven y para los asuntos que les afectan.


4// NORK IDATZI DU ETA ZER HELBURU DAUKA?

Guk (Elena Bernia eta Paloma de la Cruz) hartu dugu haur eta nerabeen **parte-hartze prozesua diseinatzeko ardura** (haien mugarriak, saioak, lantegiak, material didaktikoa eta komunikaziorako materiala), Nafarroako Gobernuarekin eta aurrez aipaturiko lege aurreproiektuaren saioak bideratzeko ardura zutenekin elkarlanean.

Ikasitako guztia gidaliburu honetan sartzeko asmoa dugu, baita prozesua egin ahal izateko behar izan ditugun tresna guztiak ere, zuek erabili ahal izateko.

Horrez gain, beste tresna berri batzuk ere sartu ditugu, beren inguruneetan eta eragiten dieten kontuetan **adin txikikoen parte hartzea sustatzeko** asmoz.





GUÍA PARA LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

ADMINISTRAZIO
PUBLIKOENTZAKO
GIDALIBURUA



Si trabajas en el sector público en esta guía encontrarás:

- **Motivos** por los que integrar la voz de niñas, niños y adolescentes en los procesos participativos.
- **Un modelo** de proceso participativo dirigido a menores.
- La **crónica** del proceso de participación infantil y adolescente para *el Anteproyecto de Ley Foral de atención y protección de la infancia y adolescencia y de promoción de la familia, los derechos de las y los menores y de la igualdad*.
- **El material de apoyo** necesario (documentos, material didáctico y de comunicación) para llevar a cabo un proceso similar.
- **Un checklist** que te ayudará a valorar si nos encontramos ante la oportunidad de realizar un proceso participativo con el que integrar la voz de niñas, niños y adolescentes.



Sektore publikoan lan egiten baduzu, honako hau aurkituko duzu gidaliburu honetan:

- **Arrazoiak**, haur eta nerabeen ahotsa parte hartze prozesuetan aintzat hartzeko.
- Adingabeentzako parte-hartze prozesuen **eredu bat**.
- *Haur eta nerabeentzako laguntza eta babesari, eta familia, adingabeen eskubideak eta berdintasuna sustatzeari buruzko Foru Legearen aurreproiekturako* haur eta nerabeen parte-hartze prozesuaren **kronika**.
- Halako prozesu baterako behar den **material lagungarria** (dokumentuak, material didaktikoa eta komunikazio materiala).
- **Egiatapen zerrenda bat**, haur eta nerabeen ahotsa txertatzeko parte-hartze prozesu bat egiteko aukerarik dagoen baloratzen lagunduko dizuna.

Cómo utilizarla

Además de conocer el caso del proceso participativo que se ha llevado a cabo con motivo de la redacción del Anteproyecto de Ley, podrás:

- **Descargar y personalizar** el material de apoyo y así poder utilizarlo en los procesos participativos que organices.
- **Descargar el checklist** para poder hacer un diagnóstico de la oportunidad de organizar un proceso participativo.



¿Quieres descargar los materiales?

Visita: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/accion-gobierno/participacion-infancia-adolescencia>

Nola erabili

Lege aurreproiektua idazteko aitzakiarekin egin den parte-hartze prozesua ezagutzeaz gain, honetarako aukera ere izanen duzu:

- Material lagungarria **deskargatu eta egokitu**, hala, antolatzen dituzun parte-hartze prozesuetan erabiltzen ahalko duzu.
- **Egiatzapen zerrenda deskargatu**, parte-hartze prozesu bat egiteko aukera aztertu ahal izateko.



Materialak deskargatu nahi dituzu?

Sartu hemen: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernuaren-ekintza/haurren-eta-nerabeen-parte-hartzea>

1// PERSONAS QUE TRABAJÁIS EN ORGANIZACIONES PÚBLICAS

Si eres responsable de algún departamento del Gobierno Foral de Navarra o de otra comunidad autónoma, si formas parte de un departamento que trabaje directamente con la ciudadanía o en el Servicio de Gobierno Abierto, si estás elaborando un Anteproyecto de Ley, o trabajando en un proyecto o un nuevo servicio en el contexto del sector público; te interesa saber que integrar la voz de niñas, niños y adolescentes en la toma de decisiones de asuntos que les atañen o en los que participan **es un derecho** que ellas y ellos tienen y **es responsabilidad de personas como tú**, que trabajáis en la gestión, dirección o creación de políticas públicas **hacerlo posible**.

1// ERAKUNDE PUBLIKOETAN LAN EGITEN DUZUENOK

Nafarroako Foru Gobernuaren edo beste komunitate autonomoren bateko departamenturen bateko **arduraduna bazara**, zuzenean herritarrekin lan egiten duen departamenturen bateko kide bazara edo Gobernu Irekiaren Zerbitzuan ari bazara, lege aurreproiektu bat lantzen ari bazara, edo proiektu batean edo sektore publikoaren alorreko zerbitzu berri batean lan egiten baduzu, interesgarria da zuretzat jakitea hurrek eta nerabeek duten **eskubide bat dela** haien ahotsa aintzat hartzea eragiten dieten edo parte hartzen duten erabakiak hartzeko orduan; eta **zure gisako pertsonen ardura dela hori posible egitea**, alegia, politika publikoen kudeaketan, gidaritzan eta sorkuntzan lan egiten duzenena.

Si trabajas en el sector público, no tienes un rol decisor, pero consideras que es importante que se produzca una participación real de niñas, niños y adolescentes en los proyectos en los que estás implicada, **tu papel es importante**, puesto que las mejoras o cambios en las organizaciones pueden suceder a raíz de la iniciativa de trabajadores y trabajadoras como tú. Muestra esta guía y su ejemplo a las personas que deciden y **ayúdanos a transmitir** que la participación de niñas, niños y adolescentes es posible; y no solo eso, que es necesaria.

Sektore publikoan lan egiten baduzu, eta, erabakiak hartzeko eskurik ez izan arren, uste baduzu esku artean dituzun proiektuetan haur eta nerabeen benetako parte hartzea beharrezkoa dela, **egiteko garrantzitsu bat duzu**, erakundeetan gertatzen diren aldaketak edo hobekuntzak zu bezalako langileen ekimenetatik abiatu gertatzen ahal baitira. Erakutsi gidaliburu hau erabakiak hartzen dituztenei, haur eta nerabeek parte hartzen ahal dutela eta beraien parte hartzea beharrezkoa dela **transmititzen lagunduko diguzu**.

Qué puedes hacer después de conocer esta guía

- Ayudar a **transmitir** su mensaje: comparte en redes sociales la información que más te haya llamado la atención junto a alguno de estos hashtags



- Proponer una **reunión informativa con las personas del Servicio de Gobierno Abierto** del Gobierno Foral de Navarra o con el servicio homólogo **de tu organismo** para que os expliquen su experiencia y os ayuden a dar los primeros pasos para integrar la voz de niñas, niños y adolescentes en las políticas o proyectos de vuestro departamento.

Zer egin dezakezu gidaliburu hau ezagutu ondotik?

- Gidaliburuaren mezua **transmititzen** laguntzen ahal diguzu: partekatu sare sozialetan deigarrien gertatu zaizun informazioa, honako traola hauetakoren bat ondoan jarrita:



- Nafarroako Foru Gobernuko **Gobernu Irekiaren Zerbitzuko** informazioa emateko bilera bat proposatzen ahal diezu (edo **dagokizun erakundeko** zerbitzu homologokoei); beraien esperientzia kontatuko dizuete eta lagunduko dizuete haur eta nerabeen ahotsak zuen politiketan edo zuen departamentuko proiektuetan txertatzeko lehen pausoak ematen.

- Buscar en esta guía el **checklist para el sector público** e implementarlo. Responded a la pregunta: ¿Organizamos un proceso participativo en mi departamento? ¿Integramos la voz de niñas, niños y adolescentes en el proceso?
- Contar tu **experiencia** para dar a conocer otros casos y sus resultados. Compártela con los hashtags que te hemos sugerido.
- Convertirte en un **activista de la participación infantil y adolescente** defiéndela y asegúrate, que en tu entorno y en la medida de lo posible, cuando las personas adultas están tomando una decisión sobre un tema que afecta niñas, niños y adolescentes hayan recogido previamente su voz, ideas y propuestas sobre ello mediante un proceso participativo honesto y adaptado. ¿Les hemos hecho partícipes?

- **Sektore publikoarentzako egiaztapen zerrenda** gidaliburuan bilatu eta inplementatu. Galdera hauei erantzun: Parte-hartze prozesu bat antolatuko dugu departamentuan? Prozesuan haur eta nerabeen ahotsak aintzat hartuko ditugu?
- Zure **bizipenak** besteei helarazi, beste kasu eta emaitza batzuk ezagutarazteko. Bizipen horiek aipatu ditugun traolekin partekatu.
- **Haur eta nerabeen parte hartzearen aldeko ekintzaile bihur zaitezke**; horren alde egin ezazu, eta ziurtatu, ahal den neurrian bederen, helduek, haurrei eta nerabeei eragiten dieten erabakiak hartzen ari direnean, aldez aurretik haiek esateko zutena jaso dutela, eta parte-hartze prozesu zintzo eta egokitu baten bidez bildu direla haien ideiak eta proposamenak. Prozesuan parte hartu dute?



“NO HAY CAUSA QUE MEREZCA MÁS ALTA PRIORIDAD QUE LA PROTECCIÓN Y EL DESARROLLO DEL NIÑO, DE QUIEN DEPENDEN LA SUPERVIVENCIA, LA ESTABILIDAD Y EL PROGRESO DE TODAS LAS NACIONES Y, DE HECHO, DE LA CIVILIZACIÓN HUMANA”.

PLAN DE ACCIÓN DE LA CUMBRE MUNDIAL A FAVOR DE LA INFANCIA (30-09-1990)

**HAURREN BABESA ETA GARAPENA DA LEHENTASUNIK
HANDIENA MEREZI DUEN GAIA; IZAN ERE, HAREN MENDEAN
DAUDE NAZIO GUZTIEN ETA GIZA ZIBILIZAZIOAREN BERAREN
IRAUPENA, EGONKORTASUNA ETA AURRERABIDEA”.**

HAURREN ALDEKO MUNDUKO GOI-BILERAREN EKINTZA PLANA (1990-09-30)

2// PROPÓSITO. ¿PARA QUÉ LA PARTICIPACIÓN INFANTIL Y ADOLESCENTE?

Como seguro habrás leído en la introducción de la guía, hay muchas razones para que niñas, niños y adolescentes participen. En las siguientes páginas te mostramos algunas de ellas.

2// HELBURUA. ZERTARAKO NAHI DUGU HAUR ETA NERABEEK PARTE HARTZEA?

Gidaliburuaren hitzaurrean ziurrenik irakurriko zenuenez, haur eta nerabeek parte hartzeko arrazoi asko daude. Horietako batzuk bildu dira datozen orrialdeetan.

RAZONES DESDE SU PUNTO DE VISTA

Tengo derecho a **participar activamente** en la **construcción de una sociedad** más justa, solidaria y democrática, así como a **conocer la realidad** en la que vivo, descubrir los problemas que más me afectan y aportar soluciones a los mismos.

LEY FORAL DE PARTICIPACIÓN DEMOCRÁTICA EN NAVARRA

Es mi derecho. **Soy ciudadano y ciudadana de pleno derecho**

LA CONVENCION DE DERECHOS DEL NIÑO DE NACIONES UNIDAS (CDN)

Es mi derecho y mi responsabilidad compartir las decisiones que afectan a mi vida y a la vida de la comunidad en la que vivo.

UNICEF

Es parte de mi desarrollo.

“El desarrollo saludable de la infancia depende también de que se les permita relacionarse con el mundo, tomar decisiones de manera independiente y hacerse cargo de más y mayores responsabilidades a medida que sean más capaces de hacerlo.”

UNICEF

